

Sutondoaren epelean 2006. urterako obra nagusiak  
Kale kantalian Amaia Aldai liburuzain berria

# pitpilean

SORALUZEKO  
HAMABOSTEKARIA  
125. alea, 2006ko  
urtarrilaren 13an

HEMEN  
ERRETZEA DAGO  
"28/2005 LEGEA betez"

\*\*\*\*\*  
PERMITIDO  
FUMAR

"en cumplimiento de la LEY 28/2005"


Aldaketarik

**EZ**

herriko  
tabernetan







**Tornileria-estanzazioa  
eta  
extruzioa hotzean**

# **GOL**

**GOL industriak S.A.**  
Sagar Erreka, 19 45 PK  
Telefona: 34 943 75 21 00  
Faxa: 34 943 75 17 12  
**20590 SORALUZE**

# **SOMABE**

**MAKINA BEREZIAK  
LERRA AUTOMATIKOAK  
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA**



SORALUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.  
Mendiola industrialdea, 14-5 • Tel. 943 75 18 91 • SORALUZE



ANE YABAR

## Dana baltza

Azkenaldian, langabezian aurkitzen den gazte askorekin egin dut topo. Gehienak, ikasle "finak" izandakoak eta titulu unibertsitario ezberdinen jabeak. Izan ere, horrela esaten baitziguten, bai ikastolan, bai institutuan: etorkizunean lanpostu on bat zihurtatzeko, unibertsitateko ikasketa bat burutzea da hobena.

Hala ere, unibertsitateak pasa garen gazte askok beste errealitate batekin egin dugu topo; ustetan "etorkizuneko karrerak" izango zirenak ez dute lanmerkatuan isladarik eta ditxosozko titulua besapean hartuta, Inem-eko bulegoetan bukatu dugu inuxente aurpegiekin. Honetaz gain, lanbide-heziketako moduluak burutu dituztenek erraztasun gehiago aurkitu dute lan munduan sartzeko, gure txikitako irakasleen teoriak kolokan jarri.

Zaplasteko galanta lan-munduak ematen diguna: lau urtetik gora ikasten pasa eta gero, horrek suposatzen duen gastu ekonomikoarekin noski, eta azkenean, ezin guk nahi dugun horretan lan egin. Bigarren zaplastekoa ordea, zorte pixkatekin lanean hasten zarenean dator: soldata eskasak (900 eurodun belaunaldia omen gara), aldizkako kontratuak...

Eta gero 40 milioi ordaindu behar al ditut etxe batean sartu ahal izateko? Edo eta 600 eurotik gorako alkilerak? Bankuren batekin bizitza guztirako ezkontzea, beste aukerarik ez al daukat?

Gaur eguneko gazteori errealitate honekin bizitzea suertatu zaigu eta ez da batere xamurra. Azken egunotan, lehen lagunartean broma giroan esaten genduen esaldia burutik kendu ezinean nabil: "Dana baltz ikusteot!", eta oraingoan benetan.

## Telegrapak

Urte barri. **Stop.** zoruak igarri!. **Stop.** ji,ji!. **Stop.** urte zaharrian bezin zoro gabiz gehixenok. **Stop.** baina badira nobedadiak herrixan. **Stop.** liburuzain barrixa daukagu liburu pila artian. **Stop.** irakurle arretatsuen zai. **Stop.** besterik ez bada, liburuxo bat hartu eta agur egitera urreratu biharko dogu. **Stop.** eta horren ostian sabel dantza pixkat ikastia ez litzake geizki etorriko. **Stop.** badakigu gaur egun eta beti, gorputzaren mugimenduak zelako indarra daukan gure gogobarruetan. **Stop.** ez esan ezetz. **Stop.** ondo mobidutako sabelak badauka bere erakarpen indarra. **Stop.** loditasunaren kontuak gaurko kontuak dira. **Stop.** tabakuan legian moduan. **Stop.** komentarixo asko merezi ez dabenak. **Stop.** gehixao merezi dittu Laskurainen azkenaldiko jokuak. **Stop.** bejondeixola. **Stop.** haundixen artian azkenian. **Stop.** eutsi horri!. **Stop.** eta animoso gabizenez lehiaketa barri bat jarri dogu martxan. **Stop.** gure herrixaren historiaren berri zenbat dakigun neurtzeko. **Stop.** oinguan Erregiak emondako "Villa" tituluaren kontuak. **Stop.** badakigu aurrez Soraluze eta Erlabia be bazirala baina... **Stop.** Placencia be aspaldikua da horraitxio. **Stop.** herri bakarrian batu gintuan izendapena. **Stop.** oraingoz izendatu barik darenak aparkamentuak dira. **Stop.** zorionekuak bat eskuratzen dabenak. **Stop.** multatan aurreztuko dabenakin konpentsatuko ete dabe inbersiñua?. **Stop.** ezin jakin. **Stop.** agur bat herriko bi idazletxueri. **Stop.** Kinta eta Egañari. **Stop.** Pil-pileanen fitxaje zerrendan zarete!. **Stop.** Muxuk!!



### Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarteak  
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.  
Telefonoa: 943 75 13 04  
comunidad: kzguenea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU  
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

**Erredakzio burua:** Egoitz Unamuno  
**Erredaktoreak:** Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno

**Publizitatea:** Ugaitz Catalan  
**Logotipoa:** Jon Gabilondo  
**Banaketa:** Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.920 ale  
**Inprimategia:** Gertu Koop.  
**Diseinua eta Maketazioa:** Maku Oruezabal  
I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarreak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



### ERREPORTAIA

*2006a hastearekin batera sartu da indarrean Tabakoaren aurkako legea; tabakoaren salmenta eta kontsumoa gutxitu nahi dituen legea. Herriko taberna, farmazia, estanko eta lantokietan izan gara legearen ondorioak ezagutzeko*

## Zorion agurrak



**Hodei  
Valdivieso Argarate**  
Urtarrilaren 9xan, 2 urte  
*Zorionak eta jarraitu zaren  
bezalakua izaten!!  
Etxekuen partetik*



**Nerea  
Atxotegi Goenaga**  
Urtarrilaren 18xan, 7 urte  
*Zorionak potxola!  
Etxekuen partetik.*



Informazio gehiago  
900 110 111 doako telefonoan  
[www.gipuzkoa.net/gazteria](http://www.gipuzkoa.net/gazteria)  
Buletinen harpidetza !!!

## Ikastaroak

### "Pertsonen zaintza eta arreta"

Deitzailea: Erroak-Sartu Donostia Elkar-  
tea. Baldintzak: Beren prestakuntza-maila  
areagotu nahi duten pertsonen zuzendua.  
2006ko urtarrilaren 16tik apirilaren 7ra.  
Ordutegia: 09:30etatik 12:30etara. Plazak  
bete arte. Telefonoa: 943 47 24 26.

### Officeko Teknikari Ikastaroa langabetuentzat

Deitzailea: Cebanc; Gipuzkoako Foru  
Aldundia. Baldintzak: Ikastaroa  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren Giza  
Eskubideetarako, Enplegurako eta  
Gizarteratzeko Txekinbide Programaren  
barruan kokatuta dago. Iraupena: 210  
ordu. 2006-02-06tik 2006-04-28ra.  
Otsailean. Telefonoa: 943 31 69 00.  
Donostia.

### Argazkigintzako Tailerra

Deitzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia;  
Giza Eskubideetarako, Enplegurako  
eta Gizarteratzeko Departamentua  
Baldintzak: Irabazi asmorik gabeko  
erakundeetako gazteak, boluntarioak,  
arduradunak eta zuzendariak.  
Iraupena: 4 ordu. Edukia: 2006ko  
martxoaren 8an eta 9an. Telefonoa:  
900 11 01 11 / 943 47 26 17. Donostia.

### Lokuzio eta autokontrola

Otxoki Irrati Tailerra. Baldintzak:  
18 urtetik gorakoak. Lokuzio eta  
autokontrolako ikastaroak. Ikastaroak  
udazkenean eta neguan izango dira.  
Telefonoa: 943 32 29 90. Donostia.

## Lehiaketa

### Film Laburren XI. "Erretereriako Hiria" Lehiaketa

Erretereriako Udala. 16tik 30 urtera  
bitarteko adinak dituzten egileak.  
1.saria: 800,00 euro, diploma eta trofeoa.  
VHS, SVHS edo DVD formatuan,  
15 minututik beherako iraupenarekin.  
Epea: 2006-02-17.  
Telefonoa: 943 44 96 00.

## URTEBARRI EGUNEKO ZOZKETA



SARITUTAKO ZENBAKIA

5.965

IRABAZLEA

JOSEFINA ZUBIZARRETA

z o r i o n a k ! !

Eskerrik asko erosle danori  
eta **urte barri on!**

Josefina, urdaiazpiko eta kaba botilekin.

## Gutunak

### Parrokiako Obra Batzordearen argibidezko oharra

"Soraluzeko Askatasun Haizeak" herri  
plataformaren azken informazio horria  
irakurri eta gero, zera argitu nahi du-  
gu:

Aipatu oharrean adierazten da Fo-  
ru Aldundiak gure Udaletxeari eman-  
dako laguntzetatik diru-partida bat  
Elizaren barne-birmoldaketa egiteko  
erabiliko dela. Honen harira, esan be-  
harra daukagu elizako obrak egiteko  
eman den dirulaguntza zuzenean di-  
putaziotik datorrela, eta ez Udaletxe-  
tik; dirulaguntza hau bere egunean  
Parrokiak zuzenean Aldundiari aur-  
keztutako proiektu eta dirulaguntza  
eskaeraren emaitza dela, eta ez dela  
beraz Udal proiektuei eman zaien di-  
rulaguntza orokorretik irten. Bi diru-  
laguntza iturri bereizi eta indepen-  
diente dira. Honek ez du esaterik nahi,

inola ere, ez dugunik Udalaren lagun-  
tzarik jaso; alkatearen gestioa oso ba-  
liotsua izan da Diputatu Nagusiaren  
bisita gauzatu eta guk hari eliza kon-  
pontzeko daukagun premiaren berri  
emateko. Zinez eskertzen dugu la-  
guntza hau.

5 urte daramatzagu obra garran-  
tzitsuak eginaz, Torrearen konponketa  
edo umeltasunen kentzea esaterako, eta  
kasu guztietan, oraingoan bezela, jar-  
dunbidea berbera izan da: Proiektua  
Diputazioan aurkeztu eta bertan dago-  
kion dirulaguntza eskaera egin.

Aukera hau erabili nahi dugu Pla-  
zentziatar guztieri urteberri zorionsu  
bat opatzeko eta ia hilabete gutxi barru  
lanekin hasten garen.

**Parrokiako Obra Batzordea**

### Buenos Airestik

Nire izena Gabriela Bolumburu da.  
Gure aita, Rogelio Bolumburu Etxaniz  
2005eko abenduaren 29an hil zen Bu-  
nos Airesen, Argentinan. 19 urte zitue-  
la laga zuen aitak Plazentzia, eta urte  
guzti hauetan ez du sorterrira bisita-  
tzeko aukerarik izan. Zuen aldezkarian

horren berri ematea nahiko nuke, be-  
rak 15ero jasotzen baitzuen etxean. Be-  
ra joan bada ere, aldizkaria jasotzen ja-  
rraitu nahiko genuke. Eskerrak Pil-pi-  
leean egiten duzuen guztioi eta besarka-  
da haundi bat plazentziatar guztiei.

**Graciela Bolumburu**

### Hildakoak

LUIS EMILIO ELVIRA HERAS

### Jaiotakoak

ANDREA DOMINGUEZ ORIO

## Zer irizten dotsazu?

Urte berriarekin batera Tabakoaren Legea ezarri du indarrean Espainiako Gobernuak. Eztabaida eta zeresan asko eman duen legea.

# Igarri dozu tabakuaren legiaren eraginik eguneroko bizimoduan?



**Beñat Sierra**  
14 urte, ikaslia

Ez, ezebez. Legia ondo daguala uste dot. Osasunerako onada eta gainera hola jentiak erretziari lagako dotsa.



**Marisa Ezenarro**  
45 urte, irakaslia

Bai. Laga egin dotsat erretziari. Legia ondo ikusten dot baina zorrotzegixa pentsatzen jata. Neurri batzuk hartzia ondo ikusten dot baina erdibide bat topau bihar litzake.



**Katia Gustino**  
14 urte, ikaslia

Ez. Nik uste dot ez litzakela ipini bihar. Erretzen dabenak libre dira nun erre aukeratzeko. Gainera adin txikikuak tabernetan sartzia nahi bada be gurasuen baimena bihar izatia ez dago ondo.



**Koldo Ugarte**  
48 urte, irakaslia

Ezer gutxi baina eskolan igarri dot. Ni erretzen dot. Ez jako erretziari lagako baina erretzen ez dabenak errespetatu bihar da. Erretziari lagatzia nahi badozu ez dozu legia dala ta lagako, benetan nahi dozulako baizik.



**Migel Anjel Baskaran**  
51 urte, langilia

Pixkat bai. Nik erretzen dot. Legia ondo iruditzen jata. Ia hola danok erretziari lagatzen dotsagun. Mesede egingo loskuke.



**Maria Vila**  
57 urte, dendaria

Ez. Tabernara jua naizentan danak erretzen jarraitzen dabela ikusi dot. Ez dakit aurrera egingo daben. Isunak jarri arren, danak erretzen jarraitzen dabe.



**EDURTZA kafetegia**  
Taberna eta jatetxe zerbitzua

**Eguneroko  
menua eta  
pintxoak**

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze


Javier Alonso Zelaieta  
K. Z. 20.000.434  
Nora Bastida Etxeberria  
K. Z. 20.000.736

**HORTZ KLINIKA**

Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13







## Kalebarrengo bizilagunen eta SAH-ren elegiteak

Herrigunea birgaitzeko plan bereziari bi elegite berri egin zizkioten hilaren 24an. Lehenengoa ordenazioz kanpo geratzen diren Kalebarren-Santa Anako eraikinetako ja-beak egin zuten, Ibai Eder, Allegro, Txoko eta Kooperatibako ardura-dunekin batera. Hauen esanetan, paseo bat egiteko eraikin hauek ordenazioz kanpo lagatzea erabaki urbanistiko ulertezina da, eraikin hauek herriko paisaian enblematikoak direla argudiatuz. Gainera-

tzen dute, kale horietan burutzen den zenabit jardun ekonomikotan ere kalteak ekarriko dituela.

Bigarren elegitea Soraluzeako Askatasun Haizeak Herri plataformak egin du. SAH-ekoek Plaza Zaharra eta Arregia dorretxea plan berezian sartzea eskatzen dute; komun publikoak mantentzea eta Etxaburuetatik Estaziorako sarbidean elementu mekanikoen habilitazioa aztertzea, besteak beste.

### Baltegieta etxe berriek bizigaitasunik ez

Baltegieta 32ko etxebizitzek ez dute oraindik bizigaitasun baimenik lortu, Udaleko arduradun teknikoen esanetan ez dituztelako oraindik lizentzia tramitatu ahal izateko baldintza guztiak betetzen.



### Udalaren jasangarritasunerako konpromezua

Joan den urtarrilaren 12ko udalbatzarrean aho batez onartu zen Soraluzeako Udalak "ingurugiro, gizarte, ekonomia eta kulturako etekinak jaso eta besteentzat utziz" Euskal Herriko jasangarritasunarekin konpromezua hartzea.

## Etxabe Harategia



Euskal  
txabalkia  
Bildotsa

Merkatu Plaza 6-7 Postuak Telef. 943752375

## GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta  
pintxo  
goxo goxuak !!



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

## IÑAKI IÑARRA HARATEGI ETA URDEGIA



Kalebarren 29  
Tfnoa 943 75 12 49  
Soraluze



## ARRANO tabernia

Telefona 75 24 09

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK  
etxera

# Tabakoaren legea ke artean dago oraindik

2006 a hastearekin batera sartu da indarrean Tabakoaren Aurkako legea; tabakoaren salmenta eta kontsumoa gutxitu nahi dituen legea. Espainiako Osasun Ministerioaren arabera, helburua ez da erretzaileen kontra egitea, tabakoa erretzen dutenen kopurua murriztea baizik, 2 urtean %3 a. Espainiako hiritarren artean %34,5 ak Nikotinaren menpekotasunaduka etabakismoak astero-astero 1000 pertsona hiltzen ditu. Gure herrian lege honek izan duen eragina neurtzen saiatu gara. Horretarako herriko taberna, jatetxe, lantegi eta antzerakoak bisitatu ditugu. Hau da jakin ahal izan duguna:



## TABERNAK ETA JATEXEAK: DENAK ERRETZAILIENDAKO

Plazentziako tabernen artean batek ere ez du 100 m karratu baino gehiago. Hortaz, legeak ez du behartzen tabernako jabea tabernan erretzailiendako aparteko gune bat sortzera. Tabernariak bi aukeren artean hautatu behar izan dute: tabernan erretzen laga edo laga ez. Denek lagatzea erabaki dute. **Armendin** adierazi digutenez, oraindik ez dute argi zer egingo duten, baina beheko jangelan haurrak eta ibiltzen direnez, agian behekoa ez erretzailiendako eta goi-

koa erretzailiendako jarriko dute. **Soziedadeetan**, pribatuak direnez, juntan erabakiko dute zer egin.

## OKINDEGIAN, GOZOTEGIAN ETA JUBILAU-ETXEAN EZIN DA ERRE

**Txurritxu** gozotegia eta **Mendizabal** okindegia dira atean "debekatua dago erretzea" kartela itsatsi duten bakarrak. Bietan har daiteke kafea, eta bertako mahaietan ohikoa da bezeroak zigarroa erretzen ikustea. Mendizabal okindegian esan digutenez, "hasieran ez zekigun erretzen laga edo ez, legia ez dago argi, baina badaezpada ez dogu laga". Orain zailtzak dituzte, izan ere Eibarren antzerako lokal batzutan normaltasun osoz erretzen baita, "leku batzutan ez-erretzailiendakoko jarri zebe hasieran eta gero erretzailiendako berri". Bezero kopuruari dagokionez, pixkat jeitsi dela adierazi digute.

**Jubilatu-etxean** ere debekatu egin dute erabat tabakoa erretzea. Erabakia ez dute bertan hartu, diputazioan baizik. Jose Sobak jubilau etxeko arduradunak adierazi digutenez, jubilau batzuk oso hasarre daude tabakoaren kontrako lege berriarekin.

## LANTOKI KANPORA IRTEN BEHAR ERRETZERA

Herriko zenbait lantokitik adierazi digutenez, lantokian (bai ofizinetan edo bai tailerrean) erabat galerazita dago erretzea. Neurri zorrotz-zorrotzik ez da hartu hala ere bisitatu ditugun herriko enpresetan. Batzutan, **Soraluce kooperatiban** esaterako, hautsontzi guztiak kendu dituzte lantokitik, eta erre nahi dutenendako gune berezi bat egokitu dute kanpalkaldean, aterpean eta hautsontziarekin. 170 langileetatik 30 bat dira erretzaile Soralucen. Lege berriarekin batzuk erretzeari utzi diote eta beste batzuk gutxiago erretzen hasi dira. Beste zenbait tailerretan, **GO-Len** kasu, erabat galerazita dago tabakoa erretzea, bai barruan eta bai





kanpoan. Legez, lanorduetan ezin dute bertako langileek zigarrorik piztu, ez ofizinetan ez eta tailerrean ere. GOLeko 94 langileen artean 10 bat dira erretzaile. Hemen ere batzuk gutxiago erretzen hasi dira eta beste batzuk guztiz utzi dute bizioa.

**FARMAZIA ETA ESTANKOA: TXANPONAREN BI ALDEAK**

**Zabaleta farmazian** esan digutenez, urte berriarekin batera jente asko joan zaie erretzen uzteko tratamendu eske. Bi aukera eskeintzen dira bertan: Nikotinazko tratamenduak (nikotinadun txikle, partxe eta gozokiak) eta rezeta mediko bitartez har daitezkeen farmakoak bestetik (Zyntabac eta Quomen). "2 edo 3 hilabeteko tratamendu lagungarriak dira; alperrikoak erretzailea tabakoa uzteko kontzientziatuta ez badago" adierazi digute farmaziako langileek.



**Estankoa**n, berriz, tabako salmenta jeitsi egin da pixkat. Estankoa bertan ere ezin da erre, eta legeak estankoari gehien eragin diona, erretzaile kopuruaz aparte, "taberna guztietan tabako-makinak sartzia da", Goenagaren esanetan. "Legez estankora etorri bihar dira tabako bila".

Farmakoez aparte, badira beste-lako metodoak ere tabakoa erretzeari lagatzeko: Akupuntura, hipnosia edo talde terapiak esaterako. Hauetako bi saio egin ziren herrian duela 2 urte, Udaleko Ongizate sailak antolatuta, eta saioetan parte hartu zuten 30 erretzaileetatik 10 batek erretzeari laga zioten.



ELKARRIZKETA

# Idoia Etxeberria

TXURRUKA JATETXKO LANGILEA

**Zer eragin euki dau tabakuan legiak Txurruka jatetxian?**

Hamen danak berdin jarraitzen dau. Jangeliak 100 metro baino gitxiago daka eta beraz ez dogu zalantzarik euki: oin arte moduan erretzailiendako gunia izango da.

**Bihar beste informaziño jaso dozue legiari buruz?**

Oso informaziño gitxi jaso dogu. Telebistan entzundakua eta abogauak esandakua bakarrik. Informaziño aldrebesa entzun da gainera. Hasieran esaten zeben 16 urtetik beherakua ezingo zirala sartu erretzailiendako taberna eta jatetxietan, baina azkenian sartu ahal izango dira euren gurasuekin baldin badatoz. Legia oindiok ez da ezarri eta dana airian dago; multen eta denunzien kontua batez be.

**Tabako makinarik ez dakazue?**

Ez, eta legiak makiña jartzera bihurtzen gaittu. Tabako pakietekin tira, baiña puruekin esango dostazu: eskura

ezin dira emon, eta makinatik etara bihar dira. Ez dakigu zela izango dan gauzia, zela sartu ahal izango dogun montekristo bat makinan.

**Zu erretzailia zara?**

2 urte eta erdi noia zigarrorik erretzeke. Neri ez jatan asko kostau lagatzia, baina ez nitzan erretzaile gogor-gogorra. Oin etxian hasi dira bi tabakua laga nahixan eta asko dabiz sufritzen. Ez da bape erreza, borondate haundixa bihar da lagatzeko.

**Justua pentsatzen jatzu legia?**

Tabakua ez da ona eta nahixago dot ez bada erretzen. Batzutan eztul baten egoten naiz, baina bezero erretzailien ikuspuntua be ulertzen dot. Gobernuak hainbeste urtian jardun dau hain adiktibua dan produktu bat saltzen eta oin nahi dabe derrepentian lagatzia, osasun gas-tuak puztu diranian. Legia pixkat rarua pentsatzen jata.

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE

**Kontulan Aholkularitza S.L.**

Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarteak  
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk. 20590 Soraluze  
Tlfonoa: 943 75 17 82 GIPUZKOA

erreportaria

# Altzari zahar-berrituak erakusketa gelan

Egun hauetan ikusgai izango dira azken hilabeteetan maisuen etxean altzairuak berrizteko ikastaroan parte hartu duten ikasleen emaitzak. Irailetik abendura arte iraun duen ikastaroan, danera 50 orduan, 13 ikaslek era guztietako altzari eta adornoak berriztu dituzte. Erakusle lanetan argazkian ageri den Beatriz Etxeberría Ermuarrak jardun du. Adierazi digunez "altzari asko oso egoera txarrian zeren zitzak jota. Pazientzia haundixakin gauza politak egin ditugu, 50 orduko ikastaro batek ez badau askorako emoten be"

Lanak ikusteko azken eguna larunbata (urtarrilaren 14 ) izango da, 12etatik 13:30 etara bitartean.



## Musika eskola frontoian datozen 5 urterako

Musika eskolak eta Udal Gobernuak sinatutako akordioaren arabera, Udalak datozen 5 urteetan frontoiko eskola zaharra erabiltzen utziko dio Musika Eskolari, eta mantenimentu gastuez kargu egingo da.

## Mendaroko idaz-lehiaketan irabazle

2005ean ere Mendaroko Udaleko Kultur sailak Gabonetako idaz-lehiaketarako deia zabaldu zuen bailarako ikastetxeetara eta beste urteetan bezala parte hartu dute



Elgoibarko Institutuko ikasleek. 14-18 urtekoen mailan BH institutuko hiru neska hauek izan ziren sarituak : Maialen Olazabal mendarotarra eta Josune Egaña eta Maite Kintanilla plazentziatarrak.

# Sabel dantza erakustaldia

Joan den ostegunean sabel dantza erakustaldia izan zen kiroldegiko squash gelan. Bertaratu ziren 15 pertsonetatik (emakumezkoak denak) 10ek sabel dantzaren lehenengo pausuak ematen ikasi zuten. Ikasle hauek erakusten duten gogoaren arabera, erakustaldia ikastaro bihurtuko da datozen asteetan.



### OROITZA

2005eko abenduaren 29an hil zen, Buenos Airesen Argentinan

**ROGELIO BOLUMBURU ETXANIZ** *Goian bego*



## Juan Mari Arraindegia

**Eguneroko arraina eta konjelatuak**

Merkatu Plaza  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 24 40  
Partikularra 943 74 03 69



**HNOS. BENITO ANAIAK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoak konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

# 2006. urteko obrak

2006. urtea hastearekin batera herrian lehenengo obrak hasiko dira. Lehenengoak Kalebarren eta Santa Ana kaleen zaharberritze lanak eta Arzabaletako parkea izango dira. Hauen ostean gehiago etorriko dira, obra-agenda bete-betea dator eta. Orrialde hontan 2006ko lanen laburpentxo bat daukazue



Arzabaletako parkea egiten otsail hasieran hasiko dira



Kalebarren eta Santa Ana kale zaharberritzea datorren hilean

- **Kalebarren eta Santa Ana kaleen zaharberritzea** (Izartu II): lur berria jarri eta espaloiak kenduz oinezkoendako egokituko dute. Fatxadetako kableak ere ezkutatuko dituzte, eta obrak aprobeztatuz ur tuberia berriak sartu. Otsailian hasiko dira lanak, eta 5 hilabeteko iraupena izango dute. Aurrekontua: 208.000 euro.
- **Arzabaletako parkia** (Izartu I): Ezosi Bideko ziburu-gunea eta trenbidean aurrera dagoen grabillazko parkea lotuko dira atzekaldetik joango den bide baten bitartez. Urte hasieran ekingo diote lanei. Aurrekontua: 123.000 euro
- **Zubi nagusiko zaharberritzea** (Izartu II): lur guztia berriztuko da. Autoak baterian dauden aparkalekua (iturri aldekoa) kendu eta oinezkoendako jarriko da, espaloiak nasaituz. Aparkaleku berria zirkulazio aldaketarekin irabazitako 3. karrilean egokituko da.

Urtean zehar egingo da. Aurrekontua: 210.000 euro.

- **Ezosi Bidean** (Izartu II): parketik azken etxeetara dagoen bidean oinezkoendako espaloia egingo da, boladizo baten bitartez. Lanek 3 hilabeteko iraupena izango dute. Aurrekontua: 114.000 euro.

*Diputaziotik oraindik ez dute argitu Urkulutik Eibarrerako ur-transbaseak jarraituko duen bidea*

- **Ur transbasea:** Urkulutik Eibarrerako ur transbasea aurten egingo da, baina oraindik diputaziotik ez dute jakinarazi zein bide jarraituko duen. Aukerarik gehien Olako Zubia- Errekalde-Atxuri-Baltegietak-Sagar Errekak dauka. Aurrekontua: 1,4 milioi euro.

- **Erregetzeko aparkalekuak:** Martxoan hasiko dira bi pixutan 135 garage plazako aparkalekuak egiten. Lanek 9 hilabeteko iraupena izango dute. Garageek 16.100 eta 14.900 euroko prezioa dute.
- **Saciako etxebizitzak:** Saciako babes ofizialeko etxebizitzak martxua baino lehenago ez omen dira hasiko egiten. 50 etxebizitza berri egingo dira bertan.
- **Arraikuako lanak:** hil honetan bukatuko dira iaz hasitako lanak. Bertako bizilagunendako bi rampa jarri dira etxera iristeko eta parke bat egingo da etxe parean. Aurrekontua: 148.000 euro.
- **Kiroldegiko txapela:** Otsailean batzartuko dira udaleko ordezkariak diputazioko ordezkariekin kiroldegi gaina nola ez tali zehazteko. Proiektua egiteke dago.
- **Zinea:** aurten hasiko dira lanekin, eta datorren urtean amaitu. Udalaren asmoa zinea erabilpen askotariko gune bihurtzea da.



## Lakuesta

### Optika



**Ikusmen arazozen frogak eta argibideak**

**Argazkiak errebelatzen ditugu**

Santa Ana, 22 C- behea  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 30 59

# TXOKO KAFETEGIA




*Kafe ederra hartzeko txokorik onena!*

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789



# Kirol aukera ugari aurtengo gabonetan

Udaleko kirol sailak antolatuta, aurtengo gabonetako kirol agenda bete-betea izan da. Abenduaren 28an, haur eta gazteek zesta puntan jolasten ikasteko aukera izan zuten kiroldegiko frontoian. 55 bat gaztetxo izan ziren plastikozko zestia jantzi eta profesionalen laguntzaz zesta puntan aritu zirenak. Erakustaldiaren ondoren, profesionalen arteko exhibizio-partida jokatu ze. Aimar eta Kaltzakortak (argazkian) 30 eta 27 ko emaitzaz hartu zituzten mendean Santi eta Etxaniz. Hurrengo egunean, abenduaren 29an, gazteek Quad eta moto txiki-ekin ibiltzeko aukera izan zuten.



Urtarrilaren 7an, berriz, La Bombonera futbol txapelketa. 8an txirrindulari lasterketa simulatua.

## Laskurain itzuli da

Denboraldi luze bat lesionaturik eman ondoren, Haritz Laskurain pelotari gaztea berriz ere partidu garrantzitsuak jokatzen ari da. Bere azken aldiko bi partidu telebistan ikusi ahal izan dugu. Lehenengoan, Capellanek eta berak, 22 eta 5eko



emaitzaz errez hartu zituzten mendean Del Rey eta Elkoro. Bigarrenean, Eugirekin, 22 eta 17 galdu zuen Capellan eta Apeztegiaren aurka. Partiduko lehenengo zatia bikain jokatu arren, bigarrenean kale batzuk egin zituen eta ezin izan zion erritmoari eutsi.

### EMAITZAK

#### ESKU PILOTA

##### LASKURAIN

Del Rey-Elkoro	5
Capellan- Laskurain	22
Galarza-Arizmendi	12
Del Rey-Laskurain	22
Capellan-Apeztegia	22
Eugi-Laskurain	17

#### ATXOTEGI ETA JAUREGI ELGOIBARKO SAN ANTON TXAPELKETA

#### FUTBOLA

Aretxabaleta 0 -Sora 0	(erreg.)
Sora 1- Aierbe 14	(jub.)
Sora 0-Eibartarrak 9	(kad.)

### AGENDA

#### JAUREGI

Elgoibarko San Anton txapelketan  
13an 22:00etan, (2. partidua)

Olaetxea-Jauregi

Baez II-Loiola

#### ATXOTEGI

Elgoibarko San Anton txapelketan  
(1go partidua)

Atxotegi-Otxotorena

Ulazia-Iza

#### MENDI TALDEAREN OHARRA:

"Dagoeneko eskura daiteke 2006. urterako mendiko federatu txartela. Interesatuak Kirol bazkuneko lokalera jo dezakete asteazketan arratsaldeko 7etatik aurrera"



## JATETKEA TXURRUKA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

- Bizkarreko mina
- Esginzeak
- Tendinitisak
- Masajeak
- Erreuma
- Etxeetara fisioterapia
- Istripu ondorengo errehabilitazioa
- Kirol osteko errehabilitazioa



Unai Ormazabal Iraola  
Kolegiatu Zenbakia 947

Altos Hornos Industrialdea • Telleria, 6 bis - Of.11 • BERGARA  
Tel. 943 76 53 35 / 626 900 608 • ormazabalfisioterapia@yahoo.es



## MENDIZABAL

### OKINDEGIA

Kalebarren,10  
Telefonoa 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefonoa 943 75 13 99  
SORALUZE

## PLACENCIA KONTSUMO KOOPERATIVA

Esku eskura ! Telf.: 943 75 13 45

# Amaia Aldai Liburuzain berria

*Astelehenean hasi zen Amaia Aldai liburuzain lanetan. Bera da liburutegiko arduradun eta Udaletxeko artxiboko laguntzaile berria, oposaketetan puntuaziorik altuena lortu ostean. Liburutegira urreratu gara eibartar honen berri gehiago jakiteko*

## **Jaioterria.**

Eibar.

## **Adina.**

47 urte.

## **Ikasketak.**

Psikologian lizentziatua.

## **Beste liburutegiren baten egin dozu lan?**

Bergarako eta Zarauzko liburutegietan.

## **Ze alde igarri dozu?**

Oindiok ezin dot esan, kokatzen nabil eta. Astelehenian hasi giñan eta lehenengo lana beti izaten da ikastia liburuak zela daren klasifikautan eta ze gaurkotasan daken. Ikusentzuzkorik (audiobisualik) apenas daguala konturatu naiz.

*"Liburua beste mundu bat da, fantasiakin lotuagoa eta askoz pertsonalagoa. Irakurtzian hitzak zuk jazten dituzu"*

## **Ze jente mota etorri da liburutegira?**

### **Zer eskatzera?**

Gaztetxuak eta helduak etorri dira oin arte. Helduen artian, gehixenak emakumiak, erderazko eleberririk eskatzen. Batzuk euskeraz behai, zenbat eta gaztiago orduan eta gehixago. Euskal mitologiari buruzko liburuak be eskatu dostez, sukaldarako errezetak, heraldikakoak, historikoak...

Umiak ipuin bila etorri dira. Ume-umiak marrazki gehixagokin, eta behin 6 urtetik gora testo gehixagokin, ekilibraugua.



**Amaia Aldai, liburuzain berria.**

## **Arazorik euki dozu?**

Momentuz ez dot arazorik euki, baina badakit izaten dirala.

## **Psikologia erabilili biharkozu.**

Espero dot psikologia ikasi izanak hortan laguntzia.

## **Gomendatzeko liburu bat.**

Ipuin batean bezala, Juan Mari iriгойienena eta La Biblia de Barro, Julia Navarrokoren.

## **Asko irakurtzen dozu?**

Aspaldian ez, oposaketak prestatzeko ikasten jardun dot eta. Oin liburu berri bat dakat esku artian: nola gainditu EGA euskera jakin gabe.

Era ironiko eta fiñean kritikatu eta zalantzan jartzen da euskerian jakintza neurtzeko modu hori.

## **Jenteak nahiago du internet liburu baina?**

Aisialdirako bi modu desberdin dira; ez dot uste bata bestian kontra doianik. Liburua beste mundu bat da, fantasiakin lotuagoa eta askoz pertsonalagoa. Liburua irakurtzian zuk jazten dituzu hitzak, zure erara ulertzen dozu historixia.

## **Udaletxeko artxiboko arduradun be bazara.**

Goizetan Udaletxian egoten naiz dokumentaziñua klasifikatzenu. 5etatik 8etara liburutegixan.



*Diseinua eta Sormena*

Polígono Amillage, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 **BERGARA** (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak



**kutxa**

gizarte ekintza

## Argazki zaharra



Iturria: Koldo Heriz

### Blu-Bell taldea 1964an

**A**rgazkian Blu-Bell taldea ageri da, Eibarren, "Nuevas Estrellas" konkurtsoko lehenengo saria jasotzeko unean. Ezkerretan dagoen emakumea Mikaela da, sasoi hartako artista folkloriko ezaguna. Saria berak eman zien "Los Tres Sudamericanos"-en izenean. Blu-Bell taldea, ezkerretik eskumara: Gloribel Oregi, Rosa Mari Aizpiri, Mari Fran Aizpuru, Esozi Juaristi, Maria Jesus Mendia eta Korito Larrañaga.

## Lehiaketa

**SARIA** → Fisioterapia sesio bat!  
Gogortuz Fisioterapia Zentruan

## HERRIAREN HISTORIA

### GALDERA

Noiz izendatu zuen  
Alfonso XI.a  
Gaztelako Erregeak  
"Villa" Soraluze?

- 1.343ko urriaren 15ean
- 1.252ko azaroaren 5ean
- 1.391ko apirilaren 22an

*Aukeratu erantzun zuzena.*

Deitu **943 75 13 04** ra  
edo e-mail bat bidal ezazu:

**[pilpilean@euskalnet.net](mailto:pilpilean@euskalnet.net)**

**Aurreko  
alean...**



### ERANTZUNA

Errepideko  
seinalea  
falta da

### IRABAZLEA

Ana Mari Eguren



**aras S.A.L.**

DIN arauak jarraituz eta  
zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21  
50 Posta Kutxatila

Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03  
Faxa 943 75 22 95  
20590 Soraluze



## MENDATA taberna

Pizzak ●  
Bokadilloak ●

**Sukaldetik  
zure  
etxera!!**

● Kazuelitak  
● Razioak

ostirala **08:30 - 22:30**  
larunbata **08:30 - 22:30**  
lgandea **08:30 - 22:00**

**Tel.: 943 75 13 87**





# LIMPIEZAS TREJO S.L.

## Garbiketa Industrialak

**Errekalde, 30 behea**

**Telf.: 943 75 25 57**

**Fax: 943 75 25 56**

**20590 SORALUZE**

Garbiketa orokorrak

Garbiketa industrialetan espezializatua

Bulego eta lantegien mantenimendua

Makina garbiketak

Garaje garbiketak

Obra amaierak

Marmol eta terrazozen distiratzea

Graffiti garbiketa

Lurzoru handien errazketa eta fregatuak

### GURE ZERBITZUAK

# ELIZPE

## Hortz Klinika

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia ikustezina
- Protesiak
- Implanteak
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Hortz estetika

- 
- ✓ **DOANEKO BERRIKUSKETAK**
  - ✓ **FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA**
  - ✓ **KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA**

## ETA ORAIN...


LAGUN ARO, **PADI** (HAUREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)





**UFALAK**  
urte berri on bat  
opa dizue!

UFALA IRISH PUB  
Tel. 943 75 00 30



autonomoentzako eta mikroenpresetarako  
doako **mintegiak**

**Deba Barrena**

otsailak 2  
ELGOIBAR

Makina Erremintaren  
Institutua (IMH)

Orduetgia:  
**18:00-20:00**

## Informatika nire enpresarako: Askea ala ordaindutakoa?

**Nire enpresarako softwarea** hautatzerakoan zein da kontuan izan behar dudan irizpidea? Zein **sistema eragile** hautatuko dut? Ze **nabigatzaile?**, bestelako ze **programa ofimatiko?** **Zure enpresan** doan **erabiltzeko** tresnak dituen **CDA** ere **emango dizugu.**

Informatzeko eta izena emateko:

**943 747 314**

[www.miramondigital.com](http://www.miramondigital.com)  
[cursos@miramondigital.com](mailto:cursos@miramondigital.com)

Sustatzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



Antolatzailea:



**Miramon**  
Enpresa Digitala